

/2021 FORU AGINDUA, aren (e)koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua. Azkeneko foru agindu horrek garatu zuen apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua, zeinaren bidez erraztu baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lanbide prestakuntza eta hobekuntza A mailako edo taldeko irakaskuntza lanpostuetan.

Apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren bidez eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren 24.2. artikulua partzialki garatuz, prestakuntza eta hobekuntza profesionala eskaintzen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileei.

Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Aginduaren bidez garatu zen apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua.

Aipatutako foru aginduaren indarraldian zehar indarrean sartu zen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. Hartara, hura eta haren aldaketak aplikatuz, zehaztu dira Bigarren Hezkuntzako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetako berezko espezialitate berriak. Hori dela eta, beharrezkoa da foru agindu honen eranskinak eguneratzea, prestakuntzarako zerbitzu berezietan lor daitezkeen plazak, hots, espezialitate berriekin bat datozenak gehitzeko.

Bestalde, aldi horretan aldaketa sakonak gertatu dira unibertsitateko titulazioen izenetan eta, horrenbestez,

aldatu nahi den foru aginduaren II. eranskinean ezarritako titulazioak eguneratu behar dira. Hala, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskina (foru agindu horren bidez onetsi ziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak) irakaskuntzako espezialitateen eta haietako bakoitzerako eskatutako titulazioaren edo titulazioen erreferente eguneratua da. Hori hala izanik, II. eranskin hori aldatu da dinamikoki 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinera bidaliz. Hartara, gaur egungo II. eta III. eranskinak ezabatu dira.

Azaldutakoarekin bat, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1 g) artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

**Artikulu bakarra.**

1. Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Aginduaren 3.1. artikulua aldatu da eta ondoko idazketa du:

"Prestakuntzarako zerbitzu bereziak aitortuz bete daitezkeen plazek bat eginen dute Bigarren Hezkuntzako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetako espezialitateekin (espezialitate horiek bildu ziren Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinean edo hura ordezkatzeko duen arauan). Foru agindu horren bidez onetsi ziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak."

2. Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Aginduaren 4.1. artikulua hiru garren paragrafoa aldatu da eta ondoko idazketa du:

"Bigarren Hezkuntzako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetako espezialitateei dagozkien titulazioak Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinean edo hura ordezkatzeko duen arauan unean-unean zehaztutakoak dira. Foru agindu horren bidez onetsi ziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak."

3. Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Aginduaren 4.2. artikulua aldatu da eta ondoko idazketa du:

"Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoko espezialitateei dagozkien plazak eskuratzeko, aurreko apartatuan adierazitako titulazioetako edozein izateaz gainera, proba bat gainditu beharko da, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa onetsi aurretik emandako irakaskuntzen eta titulazioen espezifikotasuna dela eta. Proba horren kalifikazioa "Gai" edo "Ez gai" izanen da."

4. Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Aginduaren 4.4. artikulua ezabatu da.

5. Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Aginduaren I., II. eta III. eranskinak ezabatu dira.

**AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta hogeita bateko .....aren  
.....(e) (a)n.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui.